

IRAGARKIA

26/2013 Foru Dekretua, uztailaren 23koak araututakoaren arabera Zumaiako Udalak 2 ofizial eta peoi bat kontratatzeko jarraituko duen hautaketa prozesua:

1- Lanbiden irailaren 20ko epea bitartean apuntatu diren hautagaien artean Lanbidek Zumaiako Udalari lan-eskaintzan jasotzen diren ezinbesteko baldintzak betetzen dituzten hautagaien curriculumak pasatuko dizkio.

2- Hautagai horiei **aitorpen dokumentu** bat bete eta sinatu ondoren Udaletxeko erregistroan aurkeztu behar dutela jakinaraziko zaie. Aitorpen dokumentuan bere egoera pertsonalaren inguruko zenbait informazio jakinarazteaz gain, curriculumean jaso duten informazioa benetakoa dela egiaztatuko dute.

3- Informazio guztia jaso ondoren, hautagaiak ondorengo irizpideen puntuazioen arabera sailkatuko dira:

1- Langabeziarekin zerikusia duten irizpideak: gehienez 40 puntu, ondorengo haztapenarekin:

- Azkenengo lan harremana enplegu lan-eskaintza aurreko bi urteetan amaitu izana: 10 puntu.
- Enplegu lan-eskaintza egiten den data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu izana: 10 puntu.
- Diru Sarrerak bermatzeko Errentaren edo Diru Sarrerak Bermatzeko Laguntzaren jasotzailea izatea: 20 puntu.

2- Hautagaia eskaintzen den posturako egokia dela zehazten duten irizpideak: gehienez 35 puntu, ondorengo haztapenarekin:

Eskainitako lanpostuari egokitzen zaizkion ezagupenak edo lan eskarmentuak izatea:

Ona: 35 puntu.

Ertaina: 20 puntu.

Baxua: 5 puntu.

Ez du inolako ezagupen edo lan-eskarmenturik: 0 puntu.

3- Emakumezkoa izatea: 5 puntu.

4- Hogeita hamabost urte baino gutxiago edo berrogeita bost urte baino gehiago izatea: 5 puntu.

5- Pertsona desgaitua izatea: 7 puntu.

4- Lortutako puntuen arabera, peioen kasuan lehenengo 3 hautagaiek eta ofizialen kasuan lehenengo 6 hautagaiek (bi lanpostu eskaintzen baitira) **elkarrizketa bat egingo dute. Elkarrizketak gehienez 5 puntu balioko ditu.** Bertan, besteak beste, hautagaiek ahoz euskaraz komunikatzeko duten gaitasuna ere neurtuko da, lanpostu bakoitzak izendatuta duen hizkuntza eskakizunak eskatzen duenaren arabera.

OHARRA: Elkarrizketara pasatu aurretik peioen kasuan lehenengo 3 hautagai hautatzeko eta ofizialen kasuan lehenengo 6 hautagai hautatzeko orduan berdinketaren bat sortuko balitz ondorengo irizpidea jarraituko da:

Berdinketaren kasuan dauden hautagaiek curriculumean arazoitu duten lan-eskarmentura joko da. Zehazki, lan-eskarmentuaren hilabete bakoitzeko 0,5 puntu emango zaizkie beti ere eskainitako lanpostuari egokitzen bazaio. Berdinketa hausteko, hautagaiak puntuazio altuenetik baxuenera sailkatuko dira.

5- Udalak, irizpide hauek guztiak kontuan izanik, puntuaziorik altuena duten eta lanpostua betetzeko gai diren pertsonak hautatuko ditu.

6-Kontratazioa formalizatu aurretik, aukeratuak izan diren hautagaiek ezinbesteko baldintzak eta azaldu dituzten irizpideak betetzen dituztela ziurtatzeko behar diren dokumentuak aurkeztu beharko dituzte Udalak ezartzen duen epearen barruan.

Zumaian, 2013ko irailaren 20an
Giza baliabideen eta administrazio teknikaria